

TOLOSAKO UDALA*Iragarkia*

Udalbatzak 2011ko urtarrilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, behin betiko onarpena eman zion hileta zibilak egiteko udal ordenantzari, ontzat joz 5. artikuluan sartzeko proposamena, hau da, hileta zibilak egiteko erabiltzea, eraikin publiko bezala, San Blaseko kanposantuko areto akonfesionala.

Ondorioz, aipemeneko ordenantzaren testuaren eduki osoa argitaratzen da, interesdunek onarpenaren aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko aukera izan dezaten bi hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hastia.

Ordenantzaren eduki osoa hurrengo hau da:

ATARIKOA

Jakina denez, Estatu akonfesional eta laiko batean erakundeek bermatu behar dute pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzekoa, muga honekin bakarrik: Ordena publikoa mantentzea legearen arabera. Era berean, ezaguna da zer nolako aniztasun ideologiko, erlijioso eta kulturala duen gure gizarteak. Hain zuzen ere, gizartea plurala da eta etenik gabe eraldatzen ari da, bere ohitura eta ekitaldi sozialei dagokienez.

Norbait hiltzean hiletak edo omenaldi zibilak egitea behar sozial batetik sortu da: Ospakizun duin eta pertsonala eskaintzea erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei, hildako pertsonak bizitzaz zuen ikuspegiarekin bat etorritz.

Gure gizartean erlijio desberdinak bizi dira elkarrekin eta gure herrian bertan toki edo tenpluak dauzkate, beren hildakoentzat ekitaldi liturgikoak antolatzeko. Horren ildotik, Tolosako Udalak erantzun egin behar dio geroz eta eske handiagoa duen behar sozial honi.

Ordenantza honekin, beraz, erregulatu nahi da hildakoei, omenaldi gisara edo agur modura, beren familiakoek, adiskideek, elkarteek eta/edo entitateek –Tolosako gizarte zibila osatzen dute denek–, pertsona horren ekarpen komunitarioak edo balore etikoak edo/eta humanoak aitortzeko, egin nahi dizkieten ekitaldiak gauzatzeko baimena.

I. KAPITULUA**HASIERA***1. artikulua.*

Ordenantza honen helburua da erregulatzea Tolosan hileta eta omenaldi zibilak egiteko lokal eta espazioen erabilera eta hartarako baimena.

2. artikulua.

Alkateak edo berak izendatutako zinegotziak emango du baimena, 5.2 artikuluan finkatutako lokalak eta espazioak erabiltzeko, aldez aurretik Tolosako Udaletxeko Erregistroan eskaera aurkeztuta.

3. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak Tolosako Udaleko Alkatezara zuzendu behar dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako moduren batean.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno, en Sesión celebrada el 25 de enero de 2011, acordó aprobar definitivamente las Ordenanzas municipales de celebración de funerales civiles, estimando las propuestas realizadas respecto a al inclusión en el artículo 5.º de la sala aconfesional del cementerio de San Blas como edificio público destinado a la celebración de funerales civiles.

Consecuentemente, se procede a la publicación íntegra del contenido del Texto de las ordenanzas referidas, señalando a los interesados que, contra el acuerdo de aprobación de las mismas, cabe interponer recurso contencioso administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la notificación o publicación de esta Resolución.

El contenido íntegro de la ordenanza citada es el siguiente:

PREÁMBULO

Como es conocido, en un Estado aconfesional y laico, las instituciones deben garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto de las personas y comunidades sin más limitación que la necesaria para mantener el orden público de acuerdo con la ley. Asimismo, es conocida la diversidad ideológica, religiosa y cultural de nuestra sociedad, plural y en transformación constante en cuanto a la manifestación de sus costumbres y actos sociales.

La realización de funerales u homenajes civiles por fallecimiento nace de la necesidad social de ofrecer una ceremonia digna y personal a aquellas ciudadanas y ciudadanos que han escogido vivir sin la religión, de conformidad a cómo la persona difunta concebía la vida.

Así como las distintas religiones que conviven en nuestra sociedad y en nuestro propio pueblo tienen lugares o templos donde realizar sus actos litúrgicos de despedida a sus difuntos, el Ayuntamiento de Tolosa tiene la obligación de dar respuesta a una necesidad social cada día más demandada.

La presente ordenanza pretende, por tanto, regular la autorización y celebración que familiares, amistades, organizaciones y/o entidades que componen la sociedad civil de Tolosa quieran realizar a sus difuntos como homenaje o despedida a su persona, reconocimiento a sus aportaciones comunitarias o valores éticos y/o humanos.

CAPITULO I**INICIACIÓN***Artículo 1.º*

El objeto de esta ordenanza es regular la autorización y utilización de los locales y espacios previstos para la celebración de funerales y homenajes civiles en Tolosa.

Artículo 2.º

Será el Alcalde o Concejal en quien delegue quien podrá autorizar el uso de los locales y espacios fijados en el artículo 5.2, previa presentación de la solicitud en el registro municipal del Ayuntamiento de Tolosa».

Artículo 3.º

Las solicitudes de realización de funerales u homenajes civiles serán dirigidas a la Alcaldía del Ayuntamiento de Tolosa en cualquiera de las formas permitidas por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

4. artikulua.

Hiletak edo omenaldiak egiteko eskaeren tramitazioa zirkunstantziek eskatzen duten arintasun printzipioen arabera egingo da eta eskumena duen pertsonarengana helaraziko dira hark erabakia hartzeko.

5. artikulua.

Eskaerek honako datu hauek eduki behar dituzte:

— Ekitaldia ospatzeko baimena eskatzen duen pertsonaren izen-deiturak, helbidea eta identifikazioa.

— Hildako pertsonaren izen-deiturak.

— Heriotza ziurtagiria.

— Hileta zibila egiteko lehentasunezko eguna eta ordua. Udalak ahal duen neurrian aintzakotzat hartuko ditu eskatutako data eta ordua, beti ere eskaeren aurkezpen ordenari jarraituz. Aipatu ordena aldatu ahal izango da zirkunstantzia edo kasu berezietan, beti ere behar bezala arrazoituta.

— Ekitaldiaren gutxi gorabeherako iraupena.

— Eskaera lekua eta data.

— Eskatzailearen sinadura eta/edo bere borondatearen benetakotasunaren egiaztapena edozein baliabidez.

— Ekitaldiaren azalpen laburra eta erabiliko den materialarena (mahaiak, aulkiak, megafonia).

Oro har, ospakizun hauek hurrengo eraikin edo espazio publiko hauetan egingo dira:

— Berdura plaza

— Zabalarreta parkea.

— Kultur Etxea.

— Aranburu parkea.

— San Blaseko kanposantuko areto akonfesionala.

6. artikulua.

Eskaerak ez baditu betetzen aurreko artikuluan ezarritako baldintzak, interesatuari errekerituko zaio ahalik eta lasterren, ekitaldia baino lehen edo ondoren, konpontzeko egindako hutsegitea edo aurkezteko aginduzko dokumentuak.

II. KAPITULUA

INSTRUKZIOA

7. artikulua.

Hileta zibilaren ekitaldi eguna eta ordua alkateak edo berak ahalmentutako zinegotziak finkatuko ditu, hartarako irekitako espedientearen aurretik dela.

Instrukzioa eskaeren aurkezte ordenari jarraituz egingo da eta eskatzaileek emandako lehentasun ordena ahal den guztian errespetatuz. Ordena hori aldatu ahal izango da aparteko eta premia larriko zirkunstantzia objektiboak gertatzen direnean. Edozein kasutan, aparteko eta premia larriko izaerak behar bezala arrazoituta egon behar du eta beren eskubidean aldaketa pairatu dutenei entzun egin beharko zaie.

8. artikulua.

Hileta zibila zein lokaletan edo Udaletxeko zein espaziotan egingo den alkateak edo berak ahalmentutako zinegotziak erabakiko du. Oro har, 5. artikuluan finkatutako bat izango da. Aparteko egoeretan baimena eman ahal izango da beste lokal edo espazio publikoren bat erabiltzeko.

Artículo 4.º

La tramitación de las solicitudes para la realización de funerales u homenajes civiles se regirán por el principio de inmediatez que requieran las circunstancias, siendo remitidas a la persona competente para su resolución.

Artículo 5.º

Las solicitudes deberán contener:

— Nombre, apellidos, domicilio e identificación de la persona que solicita la autorización de la celebración.

— Nombre y apellidos de la persona fallecida.

— Certificado de defunción.

— Día y hora de preferencia para la celebración del funeral civil. El Ayuntamiento atenderá en la medida de lo posible la preferencia en cuanto a fecha y hora solicitadas, atendándose a la orden de presentación de las solicitudes. Dicho orden podrá ser alterado cuando concurren circunstancias o casos extraordinarios, siempre que se motive tal alteración.

— Tiempo estimado de duración del acto.

— Lugar y fecha de solicitud.

— Firma del solicitante y/o acreditación de la autenticidad de su voluntad por cualquier medio.

— Descripción breve del acto y material que se vaya a utilizar (mesas, sillas, megafonia).

Con carácter general estas celebraciones se realizarán en algunos de los edificios o espacios públicos siguientes:

— Plaza de los Cristales.

— Parque de Zabalarreta.

— Casa de Cultura.

— Parque Aramburu.

— Sala aconfesional del cementerio de San Blas.

Artículo 6.º

En caso de que la solicitud no reúna los requisitos señalados en el artículo anterior, se requerirá al interesado con la mayor urgencia posible para que, con antelación o posteriormente al acto, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos.

CAPITULO II

INSTRUCCIÓN

Artículo 7.º

La fecha y hora de la celebración del funeral civil lo fijará el alcalde o Concejal en quien delegue, previo expediente instruido a tal efecto.

La instrucción se efectuará atendiendo al orden de presentación de las solicitudes y respetando en la medida que sea posible el orden de preferencia indicado por cada solicitante. Tal orden podrá verse alterado cuando concurren circunstancias objetivas de extraordinaria y urgente necesidad. En todo caso, la extraordinaria y urgente necesidad deberá estar suficientemente motivada y deberá oírse a quienes han visto alterado su derecho.

Artículo 8.º

El Alcalde o Concejal en quien delegue será quien determine el local o el espacio del Ayuntamiento en el que haya de celebrarse el funeral civil, que con carácter general será uno de los fijados en el artículo 5.º En situaciones de naturaleza extraordinaria se podrá autorizar la utilización de otros locales o espacios públicos.

9. artikulua.

Hileta zibilak asteko edozein egunetan egin ahal izango dira, 9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

10. artikulua.

Erabiltzen diren udal baliabideen kobrantzarako, erabiltzeko orduan indarrean dauden ordenantza fiskalek erregulatutakoari jarraituko zaio.

11. artikulua.

Hileta ekitaldiak dirauen bitartean Tolosako Udaltzaingoa kanpoaldean egongo da, ekitaldia bidezko moduan gauzatuko dela bermatzeko.

III. KAPITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

12. artikulua.

Kontserbazio egokia bermatzeko, baimena duen titularrak izango du erantzukizuna, ekitaldiarengatik udal ondasunetan gertatzen diren kalte eta galeren aurrean.

13. artikulua.

Hileta zibilaren ekitaldia egingo den tokia modu berezian apaindu edo atondu nahi badute familiakoek eta/edo adiskideek, udal arduradunari garaiz jakinarazi behar diote, bidezko erabakiak har ditzan. Apaintze edo atontze lanek tokiaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu behar dituzte eta sortzen dituen gastuak haien kargura izango dira. Ekitaldia gauzatzeko zerbitzu osagarriak pertsona interesdunak emango ditu eta bere kargura izango dira. Halere, Tolosako Udalak haien gainbegiraketa egingo du.

Baimena duen titularrak izango du erantzukizuna, ekitaldiarengatik udal ondasunetan gertatzen diren kalte eta galeren aurrean.

14. artikulua.

Hileta zibiletan ez dago baimenduta gorpua aurrean egotea ekitaldian. Aldiz, baimenduta egongo da errauts kutxatilen presentzia.

15. artikulua.

Ordenantza honetan aurreikusten ez denaren aurrean, udal arduradunen aginduei jarraitu beharko zaie.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Baimena ematen zaio Tolosako Udaleko Alkatezari, ordenantza hau aplikatzeko beharrezkoak diren jarduketak aurrera eramateko.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean; eta indarrean jarraituko du Udalak Osoko Bilkuran aldatu edo indargabetu arte.

Tolosa, 2011ko otsailaren 18a.—Alkatea.

(2094)

Artículo 9.º

Los funerales civiles se celebrarán cualquier día de la semana en horario de 9 a 14 y de 17 a 20 horas.

Artículo 10.º

Para el cobro de los recursos municipales utilizados se estará a lo regulado en las ordenanzas fiscales vigentes en el momento de la utilización.

Artículo 11.º

Durante el transcurso del acto de celebración del funeral, la Policía Municipal de Tolosa permanecerá en el exterior para garantizar el normal desarrollo del mismo.

CAPITULOS III

Y OBLIGACIONES

Artículo 12.º

Con el fin de garantizar la buena conservación, el titular de la autorización será responsable de los daños y perjuicios que se causen a los bienes municipales con motivo de la celebración del acto.

Artículo 13.º

Cuando los familiares y/o amistades deseen ornamentar o acondicionar de forma especial el lugar de celebración del funeral civil, deberán hacerlo saber al responsable municipal con la antelación suficiente para que resuelva lo que proceda, respetando siempre la armonía y características del lugar y siendo a su cargo los gastos que con este motivo se produzcan. Los servicios complementarios para la celebración del acto los aportará la persona interesada e irán a su cargo. No obstante, habrá una supervisión de los mismos por parte del ayuntamiento de Tolosa.

El titular de la autorización será responsable de los daños y perjuicios que se causen a los bienes municipales con motivo de la celebración del acto.

Artículo 14.º

En los funerales civiles no está permitida la celebración con cuerpo presente. Sí se permitirá la presencia de urnas con cenizas.

Artículo 15.º

En todo lo no previsto en esta ordenanza, se deberán seguir las instrucciones de los responsables municipales.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se autoriza a la Alcaldía del Ayuntamiento de Tolosa para la realización de las actuaciones necesarias orden a la aplicación de la presente ordenanza.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el Pleno del Ayuntamiento.

Tolosa, a 18 de febrero de 2011.—El Alcalde.

(2094)